

ZIZUR NAGUSIKO EMAKUME GUZTIENTZAKO ARRETAKO
AHOLKULARITZA JURIDIKOA
PRENTSA OHARRA (08/10/02)

Gaur sinatu dugu Zizur Nagusiko Udalak eta Iruñeko Abokatu Elkargoak “Zizur Nagusiko emakume guztientzako arretako aholkularitza juridikoa” abian jartzeko elkarlanerako hitzarmena. Zerbitzu berri hau datorren 9an hasiko da eta ostegunero emanen da 15:30etik 18:30era udaletxean berean (Erreniega Parkea, z.g.); beharrezkoa izanen da aurretik 948181 896 telefono zenbakiaren bidez zita egitea.

Aholkularitza honek doako informazioa eta aholkua ematen ditu familia gaietan (bereizketak, dibortzioak, izatezko bikoteak, ezkontza erregimen ekonomikoa...), lan gaietan (amatasun eta edoskitze baimenak, eszedentziak, kaleratzeak...) eta genero indarkeriari buruzko gaietan (salaketak, urruntzeko aginduak...). Horretaz gain, segimendu juridikoa eskaintzen da.

Zerbitzu hau abian jarritz, Udal honek gizon eta emakumeen artean berdintasuna lortzearen aldeko lanarekin duen erabateko konpromisoa gauzatzen da. Informazioa oinarritzko elementutzat jotzen dugu, zeinek izaten ditugun egoerak (familiar, lanean...) baloratzea ahalbidetzen baitigu, baita izaten ditugun aukerak eta gure eskubide eta eginbeharrak ezagutu eta erabakiak hobeki hartzea ere. Iruñeko Elkargoko abokatu taldeak zigor, lan eta beste arloetan eskaintzen digun aholkularitzaren bidez betetzen dugu helburu hori.

Zerbitzua Zizur Nagusiko emakume guztiei eskaintzen zaie, haien adina eta ekonomia, lan edo familia egoerak edozein direlarik ere. Arestian aipaturiko gaietako edozeinen gaineko informazioa eskuratu beharra duen edozein emakumerengana iritsi nahi dugu. Gure abokatuak informatuko eta aholkatuko du eta, bidezkoa bada, dagozkion zerbitzuetarantz (doako justizia...) bideratuko du. Gauza bat gehitu behar dugu: Zizurko lagun orok jo dezake Aholkularitza honetara gizon eta emakumeen arteko berdintasun / ezberdintasunarekin erlazionaturiko gaiez, lege esparrutik, informazioa jasotzera.

Berdintasunaren eta emakume izateagatik gertatzen den edozein motatako diskriminazioa ezabatzearen aldeko eguneroko lanean, helburu horiei heltzeko konprometiturik gauden profesionalak aritzen gara. Agerian jartzen dute hori gurekin diren pertsonok: Iruñeko Abokatuen Elkargoaren ordezkari ari den dekanoa, zerbitzua eskaini ahal izateko funtsezko elementua, gizarte zerbitzuen arduradun Mila Iriarte, udaltzaingoaren buru Pablo Salvatierra eta berdintasun teknikari eta aholkularitzako

koordinatzaile Pili Latienda. Udal hau osatzen duten talde politikoak aiantzi gabe, zeinek beren esparrutik berdintasun politika hauek posible egiten baitituzte.

Zerbitzuak harrera ona izatea eta Zizurko emakume guztiengana iristea espero dugu.